



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

Ez-egoiliarren Errentaren Zergaren Foru Arau Proiektua. Eragina zerga-bilketan eta generoan



Txosten honen helburua da kuantifikatzea zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan Ez-egoiliarren Errentaren Zergaren Foru Arau Proiektuak.

Araudi aldaketa honen arrazoiak dira:

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 21. artikuluan ezartzen duenez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga itundutako tributu bat da, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen funtsezko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatu behar dena.

Hala ere, itunak dioenez, atzerriko egoiliarren diren pertsona edo entitateek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei zerga honen araudi autonomoa aplikatu behar zaie, Ekonomia Ituneko 14. artikulua sozietateen gaineko zergari dagokionez ezarritakoarekin bat etorritik.

Ekonomia Itunean xedatutakoa betez onartu zen azken erregulazioa apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua da, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena.

Bada, aipatutako foru arauak 3. artikuluan ezartzen duen bezala, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren araudiarekin bat etorritik interpretatu behar da, dagokionaren arabera.

2014ko urtarrilean zehar, Gipuzkoako Batzar Nagusiek bi foru arau berri onartu zituzten, hain zuzen ere pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga berriro arautzen dituztenak haien



edukian aldaketa handiak sartu eta gero. Horrek eragin nabarmena duenez gaur indarrean dagoen 2/1999 Foru Arauaren erregulazioan, beharrezko gertatzen da arau horren edukiak zerga horien erregulazio berrietara egokitzea.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren erregulazioa aldatzeko aipatutako arrazoi horretaz gain, estatuan une bakoitzean ezarritako arau berberak aplikatzeko obligazioari dagokionez, kontuan izan behar da 2/1999 Foru Arauan ez direla oraindik jaso Estatuak 2012. urte amaieraz geroztik egin dituen aldaketak, hain zuzen ere xedapen hauek direla medio onartuak: abenduaren 27ko 16/2012 Legea, jarduera ekonomikoa bultzatzekoa, urriaren 29ko 16/2013 Legea, ingurumen arloko gaiak zergapetzeko neurriak ezarri eta bestelako neurri tributario eta finantzarioak onartzen dituenak, eta abenduaren 23ko 22/2013 Legea, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Horrek guztiak ezinbesteko egiten du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren erregulazioa berrikusi eta beste bat onartzea hura aplikatu behar zaienei behar den segurtasun juridikoa emateko.

Zerga-bilketako eragina

Proiektu honek proposatzen dituen aldaketak eta Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan eragina izan dezaketenak, atzerriko egoiliarren diren pertsona edo entitateek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei, eta Gipuzkoan aitortu behar dutenei dagokie.



Azkeneko hiru urteetan Gipuzkoan aitortu duten establezimendu iraunkorrak aztertuta:

| Urtea | Aitortzaile kopurua | Oinarri likidagarria | Kuota osoa |
|--------------|----------------------------|-----------------------------|-------------------|
| 2010 | 112 | 1.915.863 | 570.434 |
| 2011 | 119 | 1.659.078 | 491.843 |
| 2012 | 130 | 857.928 | 432.703 |

Azpimarra dezakegu aitortzaile kopuru oso txikiari dagokiola, aitorturiko oinarri likidagarriaren bilakaera nabarmenki jaitsierakoa dela oinarri likidagarri negatiboen igoeragatik eta kuota osoaren zenbatekoa soilik sozietateen gaineko zergaren kuota osoaren %0,1a dela.

Datu horiek kontuan izanik eta ezartzen diren aldaketak kontuan hartuta, honakoa ondorioztatu daiteke: Aldaketek oinarri likidagarrian arinki eragin dezaketela soilik (ezarpen tasa ez da aldatzen arau berriarekin), baina diru sarreretan eta aurrekontuan ez dutela alde nabarmenik ekarriko.

Genero eragina.

Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak,



Gipuzkoako Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztu behar dela eranskin gisa.

Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurrien identifikazioa eta eragina

Foru Arau Proiektuaren bitartez aldaketa asko ezarri nahi dira, baina Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan eragina izan dezaketenak, ez egoiliarrek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei, eta Gipuzkoan aitortu behar dutenei dagokie. Diru sarreretan eta aurrekontuan ez ditu alde nabarmenak ekarriko.

Azken hiru urteetan Gipuzkoan aitortu duten pertsona fisikoei dagokien establezimendu iraunkorren zenbatekoak sexuaren arabera xehatuta aztertu ditugu:

| Urtea | Aitortzaile kopurua | | Oinarri likidagarria | | Kuota osoa | |
|-------|---------------------|---------|----------------------|---------|------------|---------|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| 2010 | 42 | 62 | 294.163 | 562.929 | 88.875 | 185.104 |
| 2011 | 43 | 67 | 390.625 | 735.595 | 110.615 | 225.157 |
| 2012 | 48 | 71 | 370.558 | 766.941 | 117.427 | 233.846 |

Azpimarra dezakegu gizonei dagokiela establezimendu iraunkor kopuru handiagoa, eta batez besteko oinarri likidagarri eta kuota oso handiagoak aitortzen dituztela.



Gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna denboran zehar mantentzen da eta Foru Arau Proiektu honetan aurreikusten diren aldaketek ez du ematen egoera aldatuko duenik, izan ere, bere kasuan, soilik oinarri likidagarrian aldaketa txikiak eragin ditzakete (ezarpen tasa ez da aldatzen arau berriarekin).

Donostia, 2014ko uztailaren 17a

AZTERLANETAKO TEKNIKARIA

ONIRITZIA

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA